

ABERATSAK

IRATZEDER

Xalbat BERTERRETICHE(1980)



A-beratsak a-beratsak heldu dira egun hitsak



Horra kutxak horra moltsak zila tu ak e-ta hutsak



Horra kut-xak horra moltsak zila tu ak e-ta hutsak

ERREPIKA



BAI DOHATSU DOHAT-SU JAUNARI DAGON BEHARTSUA



BAI DOHATSU DOHATSU HAREN-A DA ERREINU-A

ABERATSAK , ABERATSAK

Bai dohatsu ; dohatsu,
Jaunari dagon behartsua,
Bai dohatsu ; dohatsu,
Harena da erreinua.

1-Aberatsak aberatsak
Heldu dira egun hitsak,
Horra kutxak horra moltsak
Zilatuak eta hutsak (bis)

2-Dauzkatzuen ontasunak,
Harrek dira barnez janak;
Dirdir egun, errauts bihar,
Aberatsak egin nigar. (bis)

3-Bertzen lanez hanpatu-ta
Joan zarezte bestaz besta,
Bainan tanpez urtuko da
Zuek bildu diru meta. (bis)

4-Langileak ez du izan
Hartze zuen lan-saria;
Bainan denak zuzen ditzan,
Huna Kristo. Bozkaria ! (bis)

5-Oraidanik indar egin,
Gutan ariz , Kristo Jauna;
Argi-semek elgarrekin
Dugun heda maitasuna.